

Prensa oharra

Nota de prensa



Donostiak udan mugikortasuna kudeatzeko neurri-plan oso bat jarri du abian

Udalaren neurri nagusiak dira garraio publikoaren funtzionamendu egokia bermatzea eta disuasio-aparkalekuen erabilera sustatzea.

Donostiako Udalak zenbait neurri jarriko ditu abian udako hilabeteetan trafikoa arautzeko, noizean behin, bisitari gehien izaten diren uneetan sortzen diren eragozpenak arintzeko, eta **garrantzia berezia emango die garraio publikoari eta hiriko aparkaleku periferikoen sareari.**

Gaur goizean egin duen aurkezpenean, Olatz Yarza Mugikortasun eta Garraio Jasangarriko zinegotziak azpimarratu du bere zuzendaritzak urte osoan gogor lan egin duela trafikoa hobeto kudeatu ahal izateko formulak eta neurriak aztertzen, betiere garraio publikoaren funtzionamendu egokia bermatzeko, hori baita, zalantzarik gabe, Donostian mugitzeko modurik onena, ingurumen-kutsaduraren eta kutsadura akustikoaren ikuspegitik.

Informazio-kanalak hobetzea, trafikoa modu eraginkorragoan eta baliabide gehiagorekin arautzea, disuasio-aparkaleku berriak sustatzea edo garraio publikoko sistemak hobetzea izan dira Udalak datozen hilabeteetan hiriaren mugikortasuna antolatzeke landu dituen ildoak.

Yarzak azpimarratu nahi izan du, halaber, azken udak zailak izaten ari direla trafikoaren esparruan; izan ere, Mugikortasun Planaren diagnostikoak jasotzen duen bezala, egungo egoeran gero eta gehiago mugitzen gara mundu osoan, eta horrek eragin handia du gurea bezalako hirietan.

“Donostia hiri erakargarria da arrazoi askorengatik, eta guretzat pozgarria da bisitariak gure hirira etortzea gure kulturaz, aisialdiaz edo merkataritzaz gozatzeko, baina mezu bat helarazi nahi dugu: **garraibide eraginkor eta jasangarri asko ditugu hirigunera iristeko**”, adierazi du zinegotziak.

Park and Ride

Hirira beren ibilgailu pribatuan etortzea erabakitzen dutenentzat, Donostiak doako hainbat aparkaleku ditu hiriko sarbide nagusietatik hurbil, eta Erdialdearekiko loturak garraio publikoaren bidez egiten dira, era horretan, **Park and Ride** edo disuasio-aparkamenduen sare garrantzitsu bat sortuz.

Uda honetan, berritasun gisa, Donostiak **disuasio-aparkaleku** berri bat izango du unibertsitateen eremuan, **EHUrekin sinatutako akordioari esker**. EHUk Berio pasealekuan (autokarabanen aparkalekuaren ondoan) dagoen aparkalekuaren erabilera lagako du, **uztailaren 8tik abuztuaren 25era**. Ikasturtean zehar unibertsitateko ikasleek erabiltzen duten aparkaleku horrek **200 plaza** inguru ditu eta garraio publiko erregularraren bidez dago lotuta Erdialdearekin.

Prensa oharra

Nota de prensa



Aurten, gainera, Udalak **Igarako aparkalekua** *Park and Ride* gisa gaitu du: aparkaleku horrek **220 plaza** izango ditu eta garraio publikoaren zuzeneko konexioa izango du handik metro gutxi batzuetara bakarrik. **Donostia Turismoari** esker, aparkatu ondoren, bisitariak autobus-geralekuetara bideratzeko seinaleak ezarriko dira.

Bi *Park and Ride* horiek **doakoak izango dira**, baina **aparkatzeko 24 orduko muga** izango dute txandakatzea errazteko; beraz, aparkalekuan sartzekoan tiketa atera beharko da.

Eta azken urteetan ohikoa izan den bezala, uda honetan Dbusen anezka-zerbitzua jarriko da martxan **Illunbeko doako aparkalekuaren (300 plaza)** eta Ehunurteurrenaren plazaren artean, uztailaren 13tik (larunbata) irailaren 1era (igandea), 20 minuturo, 11:00etatik 22:30era. Zerbitzu hori ematen duen autobusa % 100 elektrikoa da, ingurumen-inpaktua ahalik eta gehien murrizteko, eta Next Generation funtsek finantzatzen dute.

Aparkaleku horiek, **guztira doako 700 plaza baino gehiago dituzte**, eta hirira sartzeko errepideetan seinaleztatuta egongo dira, Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren panel argitsuen bidez, bi erakundeekin lortutako akordioari esker, eta aparkatzeko gune horietara bideratuko dituzte ibilgailuak.

Donostiak, halaber, doako beste aparkaleku-eremu periferiko batzuk ditu, eta aukera interesgarria dira udan: esate baterako, Miramongo Parke Teknologikoak dituen **doako 1.700 plaza baino gehiago** –hiriko autobus-linea ohikoenak iristen dira Parke Teknologikora–, edo **Zuatzu Enpresa Parkea (650 plaza)**, linea erregularren bidez Erdialdera konektatuta dagoena.

Iparraldetik Donostiara datozenentzat, beste aukera on bat Irungo **Ficoba** azokaren doako aparkalekua da: 900 plaza ditu, 8:00etatik 22:00etara dago irekita, eta Donostiarekin Euskotrenen bidez dago konektatuta, 30 minuturo.

Denbora errealeko informazioa

Azken hilabeteotan, Udalaren helburu nagusietako bat izan da trafikoaren egoerari eta ibilgailu pribatuak **Erdialdera sartzeko dauden aukerei buruzko informazio-sistema hobetzea**. Horretarako, komunikazio-kanpainak abiaraziko dira jatorrian, eta teknologia berriak erabiliko dira, beren ibilgailu pribatuan Erdialdera joateko beharra duten pertsonen plangintza errazteko.

Alde batetik, **Google Mapsen** ibilbideen planifikatzaileen eta **Waze** nabigazio-aplikazioaren bidez, Mugikortasun Zuzendaritzak **denbora errealean emango du hiriko trafikoaren egoeraren berri, eta trafiko intentsitate handiko egoeren berri emango du**, autopilaketa handieneko eremuetan sartu aurretik erabaki egokiak hartu ahal izateko.

Informazio hori erraz emango da kolore-eskala baten bidez. Eskala horretan, trafikoa **arina, ertaina edo handia** den adieraziko da, eta **Donostia Transport** aplikazioan ere kontsultatu ahal izango da. Aplikazio horretan, **abisuak aktibatuko dira intentsitate handiko kasuetan, eta gertuen dauden disuasio-aparkalekura edo *Park and Ridera* bideratuko dira ibilgailuak**.

Prentsa oharra

Nota de prensa



Termometro digitalen pantailak ere erabiliko dira gertuen dauden disuasio-aparkalekuen kokapena adierazteko. Informazio hori indartzeko, 30 seinale bertikal espezifiko inguru erabiliko dira, ibilgailuak aparkaleku horietarantz bideratzeko. Halaber, Dbizi bizikleta-zerbitzuak dituen publizitate-euskarrietako batzuk erabiliko dira xede horretarako. Informazio hori guztia Donostiara iristeko bidean zehar emango da, hirira sartzeko errepideetako paneletan.

Denbora errealeko ekintza horiek indartzeko, hainbat **komunikazio-kanpaina egingo dira jatorrian**, Donostia Turismoaren eta inplikaturako beste eragile eta operadore batzuen laguntzarekin, **Donostiaz gozatu ahal izateko, ibilgailu pribatua ez den beste aukera guztien berri emateko**. Kanpaina horiek batez ere Iparraldean egingo dira, eta sare sozialen eta bilaketa-tresna nagusien bidez egingo dira.

Trafikoa erregulatzeko protokoloa

Informazio-neurri horiez gain, eta joan den udako balantzearen balorazioa egin ondoren, trafikoa kudeatzeko protokoloa hobetzen aritu da Mugikortasun Zuzendaritza. Izan ere, protokolo horren helburua bete zen arren, hobetzeko hainbat puntu antzeman ziren.

Horrela, aurten berriro jarriko da martxan **trafikoa erregulatzeko protokolo bat**, Erdialdera ibilgailu gehien iristen diren uneetarako, baina hainbat doiketa eginda **garraio publikoaren arintasuna bermatzeko**, hala nola Ategorrietako erregulazio-puntua Kontadores eremura eramatea, eta errepideen egoera orokorraren inguruko **denbora errealeko informazioa indartzea**.

Hiriko hainbat tokitan banatutako kameraren bidez eta operatiboaren koordinatzailearen kaleko informazioaren bidez, errepideetan karga gehiegi dagoela hautematen denean, protokolo hori aktibatu egingo da. Informazio hori guztia eremuko lurpeko aparkalekuen okupazio-datuekin ere osatuko da.

Protokoloa aktibatu ondoren, hainbat **erregulazio-puntu** ezarriko dira trafikoa beste bide batzuetara edo hiriko aparkaleku periferikoetara bideratzeko, Erdialdera modu justifikatuan sartu behar duten ibilgailuen kasuan izan ezik.

Eta protokolo hori hobeto kudeatzeko, informazio-kanpainetarako baliabide gehiago eskaintzeaz gain, Udalak **plantilla indartu du, Mugikortasuneko 24 agente gehiago** izango baititu udako kanpainan.

Lurpeko aparkalekuak

Donostiak txandakako lurpeko aparkaleku-sare zabala du, baina horietako asko hiriko espazio txiki batean kokatzeak zaildu egiten du haietarako sarbidea ibilgailu asko pilatzen diren uneetan.

Horregatik, Udalak akordio bat lortu du **Erdialdeko aparkalekuen enpresa emakidadunekin** (Cervantes, Boulevard eta Okendo), **zerbitzua hobetzeko eta horien**

Prentsa oharra

Nota de prensa



erabilera eraginkorragoa sustatzeko. Hitzarmen garrantzitsu honen neurriak azken administrazio-izapideetan daude, eta datozen asteetan aurkeztuko dira.

Garraio publiko eta jasangarria

Garraio publikoari dagokionez, aurten ere Dbusek bere **zerbitzua indartu eta bere ordutegiak zabaldu ditu ekainaren 23tik abuztuaren 31ra**, hirian joan-etorriak modu jasangarrian egitea errazteko.

Errefortzu-zerbitzuak ekainaren 23an bertan hasiko dira, San Joan bezperan, **udan zehar zerbitzu gehigarriak egongo dira auzoetara**, azken irteeretan **ordutegia luzatuko da**; gautxori zerbitzu gehiago egongo dira asteburuetan eta jaiegun-bezperetan, eta zerbitzu bereziak eta maiztasun handiagoak ezarriko dira ekitaldi berezietarako.

Mugi, BAT edo BARIK txartelik ez duten bisitariarentzat (gaur egun % 50eko hobaria dute txartel horiek), Donostiak, joan den irailetik, **QR kodea duen txartel berria momentuan eta Dbusen app ofizialaren bidez erosteko aukera eskaintzen du**, udal autobus publikoaren sare osora hurrengo 30 minutuetan, 24 ordutan edo 48 ordutan mugarik gabe bidaiatzeko aukera ematen duena. Hirian zehar bidaiatzeko modu azkar, erraz eta eroso da, bestelako txartelik eskatu beharrik gabe.

Baina, autobus zerbitzuez gain, Donostiak **bizikleta publikoko zerbitzu** bat dauka: gero eta erabiltzaile gehiago ditu, 2023an zerbitzu horren geltoki-area zabaldu zen eta hiriko ia puntu guztietara iristen da. Ohiko tarifez gain, Dbizik **noizbehinkako abonua** bat du, hiria bisitatu eta bizikletaz mugitu nahi dutenentzat bereziki pentsatuta dagoena. Abonua horrek 6 € balio ditu, 30 eguneko iraupena du eta 0,45 € eta 0,95 € arteko prezioa du bidaiak bakoitzeko.

Eta beren bizikleta duten pertsonentzat, Udalak bizikletak aparkatzeko **216 plaza gehiago jarri** ditu udako hilabeteetarako, urte osoan zehar dauden 8.300 plaza inguru indartzeko. Aldi baterako plaza horiek Kontxa, Zurriola eta Ondarreta hondartzen ondoan eta Anoetako Paco Yoldi kiroldegia ondoan egongo dira kokatuta.

Donostia, oinezkoen hiria

Donostiak dituen mugikortasun-aukeren artean, garrantzitsua da nabarmentzea hiriak eskala aproposa duela oinez ibiltzeko. Hori dela eta, Udalak **Metrominuto mapa** dauka, hiriko hainbat punturen arteko oinezkoen ibilbidearen distantzia eta denbora erakusten dituena, eta hainbat ibilbide osasungarri proposatzen dituena. Plano horretan, besteak beste, aparkaleku periferikoak non dauden zehazten du (Igara, Zuatzu, Unibertsitateak, Miramon edo Ospitaleak/Illunbe). Metrominuto mapa hemen kontsulta daiteke: www.donostia.eus.

Autokarabanak

Prensa oharra

Nota de prensa



Autokarabanak gero eta gehiago erabiltzen dira garraiobide eta ostatu gisa, eta asko dira horrelako ibilgailuetan hiria bisitatzen dutenak. Horregatik, azken urteotan, **autokarabanen aparkalekua arautu da eta ibilgailu horiek aparkatzeko gune berriak prestatu dira.**

Aurtengo berritasun gisa, Udalak autokarabanentzako **doako bi aparkaleku-eremu berri egokitu ditu Illunbeko aparkalekuan**, 45 plaza ingururekin eta ibilgailu horientzako beharrezko zerbitzuekin. Aparkaleku horrek 72 orduko egonaldia izango du gehienez, eta Erdialdearekin konektatuta egongo da 20 minuturo, Dbusen anezka-zerbitzuaren bidez.

Gomendagarriena Igeldoko edo Igarako kanpinetara joatea bada ere, beste baliabide batzuk ere badaude, hala nola **Berioko autokarabanen aparkalekua**: 7,60 euroko tarifa du goi-denboraldian eta 72 ordukoa da gehieneko egonaldia.

Udalak Autokarabanen Euskal Klubarekin ere lan egin du neurri horiek garatzeko, eta haren laguntza izango du aukera guztiak foro espezializatuen bidez zabaltzeko.

Gomendioak

Neurri horiek guztiak garraio publikoari laguntzeko pentsatuta daude, baina baita ingurumen-kutsadura eta kutsadura akustikoa murrizteko ere, eta, gainera, Erdialdera beren ibilgailu pribatuan joan behar duten pertsonak erraz joateko aukera izan dezaten.

Horrekin guztiarekin, Udalak gomendio batzuk egiten ditu datozen hilabeteetan hirian mugikortasuna arinagoa izan dadin:

- Garraio publikoari edo mugikortasun aktiboari lehentasuna eman.
- Ibilbideak planifikatu Donostiara etorri aurretik.
- Trafikoaren egoera kontsultatu bidaia hasi aurretik.
- *Park and Ride* aparkalekuak erabili.

Donostia, 2024ko ekainaren 20a.